



DEIALDIA, OFIZIAL ADMINISTRARIAREN ETA OFIZIAL ADMINISTRARI OSAGARRIDUNAREN 42 LANPOSTU LEKUALDATZE-LEHIAKETA BIDEZ BETETZEKO, IRUÑEKO UDALAREN ETA HAREN ERAKUNDE AUTONOMOEN ZERBITZURA ARITZEKO

Iruñeko Udaleko Giza Baliabideetako zuzendariak 2025eko maiatzaren 19an emandako ebazpenaren bidez onetsi du ofizial administrariaren eta ofizial administrari osagarridunaren 42 lanpostu lekualdatze-lehiaketa bidez betetzea, Iruñeko Udalaren eta haren erakunde autonomoen zerbitzura aritzeko.

Hautapen-prozesua honako hauetan xedatutakoaren arabera gauzatuko da: 251/1993 Legegintzako Foru Dekretua, abuztuaren 30ekoa, Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko Langileen Estatutuaren testu bategina onesten duena; 1/2025 Foru Lege Dekretua, 2025eko maiatzaren 7koa, Nafarroako Administrazio Publikoetan behin-behinekotasuna murrizteko langileen arloko aparteko eta premiazko neurriak onesten dituen; 215/1985 Foru Dekretua, azaroaren 6koa, Nafarroako Administrazio Publikoetako lanpostuak betetzeko Erregelamendua onesten duena; azaroaren 6ko 97/2024 Foru Dekretua; Tokiko Gobernu Batzarrek 2025eko otsailaren 24 hartutako erabakia; aplikatzekoak diren gainerako arauak, eta deialdi honetako oinarriak.

OINARRIAK

1. Xedea.

1.1. Deialdi honen xedea da lekualdatze-lehiaketa bidez betetzea ofizial administrariaren eta ofizial administrari osagarridunaren 42 lanpostu, funtzionario araubidekoak eta C mailakoak, plantilla organikoan II. eranskinean xedatutakoaren arabera identifikatuta daudenak.

1.2. Hasieran deitutako lanpostu horiei gehitzen ahalko zaizkie kalifikazio-epaimahaiak deialdia egin duen organoari lehiatzaileen zerrenda (lortutako puntuen hurrenkeraren arabera) igortzen dion egunean bete gabe dauden lanpostuak ere.

Era berean, lanpostu horiek deialditik kanpo uzten ahalko dira, dela birkokatze prozesuei lotuta gelditzen direlako, dela jarduneko zerbitzura itzultzen direnei esleitzen zaizkielako, nahiz antolamenduan aurreikusitako beste edozein arrazoiengatik.

Halaber, lehiaketan lanpostua lortzearen ondorioz izangaiek hutsik utzitako lanpostuak ere beteko dira lekualdatze-lehiaketa honetan.

Aurrekoa gorabehera, ez dira eskainiko lekualdatze-lehiaketan beste lanpostu bat lortu duten izangaiek hutsik uzten dituzten lanpostuak, baldin eta lanpostu horiek “iraungitzekoak” direlako bete behar ez badira edo antolakuntza-arrazoiengatik horiek betetzea beharrezkoa ez bada.

Deialdiko zazpigarren oinarrian aipatzen den lanpostu hutsak hautatzeko epean, deitutako lanpostuen ordez, organo eskudunek egin ahal izan dituzten aldaketen arabera egoki direnak jartzen ahalko dira, zerbitzuaren beharren arabera.

2. Izangaiek bete beharreko baldintzak.

2.1. Indarrean den araudian xedatutakoaren arabera, lekuz aldatzeko lehiaketa honetan parte hartzen dutenek betekizun hauek bete beharko dituzte eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunean eta esleitutako lanpostuaz jabetzeko unean:

a) Iruñeko Udaleko edo haren erakunde autonomoetako langile finkoak izatea, haien egoera administratiboa edozein dela ere.

b) C mailan sailkatua egotea, ofizial administrariaren lanpostuan.

c) Euskara derrigor jakitea eskatzen duen lanpostu batera sartu nahi bada, lanposturako eskatutako maila egiaztatzen duen titulu edo egiaztagirietako bat eduki beharko da, Europako Erreferentzia Esparru Bateratuan ezarritako mailekin bat, Nafarroako Administrazio Publikoaren Institutuko zuzendari-kudeatzaileak irailaren 13an emandako 210/2010 Ebazpenean jasota daudenetako bat (117. Nafarroako Aldizkari Ofiziala, 2010eko irailaren 27koa), edo ofizialki baliokidetzat jotzen den titulazioa.

d) Subrogazio-prozesuetatik datozen langile finkoak haien produkzio-unitateari atxikita dauden lekualdatze-lehiaketetara soilik aurkezten ahalko dira.

2.2. Betekizun horiek parte hartzeko eskaerak aurkezteko epea bukatzen den egunean beteta eduki beharko dituzte izangaiek, eta plazaren jabetza hartu arte mantendu beharko dira.

2.3. Izangaiek deialdi honen oinarrietan ezartzen den unean frogatu beharko dituzte aurreko betekizun horiek.

2.4. Lanpostuaren erreserbarik gabeko eszedentzia dauden Iruñeko Udaleko eta haren erakunde autonomoetako langileak zerbitzu aktibora itzultzen ahalko dira lekualdatze-lehiaketaren deialdian parte hartuta.

2.5. Zerbitzu aktibora lanpostu huts bati behin-behineko atxikita itzuli diren langileak lekualdatze-lehiaketaren deialdira aurkeztu beharko dira, behin betiko destinoa esleitu dakien.

2.6. Lehiaketa honetan parte hartzeak ez du ekarriko, inongo kasutan, parte hartu aurretik lehiatzaileek zuten araubide juridikoa aldatzea.

3. Eskabideak.

3.1. Eskabideak aurkezteko epea.

Deialdian parte hartzeko eskabideak hamar egun naturaleko epean aurkeztu beharko dira, deialdia Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik aitzina kontatuta. Eskabideak aurkezteko ezarritako epea luzaezina izanen da.

3.2. Eskabidea aurkeztea eta formalizatzea.

Hautapen-prozesu honetan parte hartu nahi dutenek modu telematikoa aurkeztu beharko dute eskabidea, Internet bidez, www.pamplona.es/eu webgunean, honako nabigazio-bide honi jarraikiz: "Izapideak eta lizitazioak", "Lan-eskaintzak", "Enplegu publikoa", "Enplegu publikoko deialdiak", deialdi honi dagokion aipamenean.



3.3. Eskabidearekin batera aurkeztu beharreko agiriak.

Izangaiek I. eranskinean zehaztutako baremoan xehatzen diren hizkuntzen ezagutza egiaztatzen duten ziurtagiriak baino ez dituzte aurkeztu beharko.

Euskara jakitea betekizun gisa duen lanpostu batera sartu nahi dutenek, lanpostu hutserako eskatutako maila egiaztatzen duen titulu edo egiaztagirietako bat aurkeztu beharko dute, Europako Erreferentzia Esparru Bateratuan ezarritako mailekin bat, Nafarroako Administrazio Publikoaren Institutuko zuzendari-kudeatzaileak irailaren 13an emandako 210/2010 Ebazpenean jasota daudenetako bat, edo ofizialki baliokidetzat jotzen den titulazioa.

Iruñeko Udaleko eta haren erakunde autonomoetako administrari lanpostuan emandako zerbitzuei buruzko informazioa zuzenean gehituko da parte-hartzaile bakoitzaren espediente pertsonalean, eta epaimahaiaren esku jarriko da barema dezan.

3.4. Aski izanen da agirien kopia sinpleak aurkeztea; hala ere, emandako datuak edo agiriak okerrak edo faltsuak badira, horrek berekin ekarriko du horrelako kasuetarako ezarritako erantzukizun penalak, zibilak edo administratiboak eskatzea.

Administrazioak edonoiz eskatzen ahalko dizkie izangaiei deialdian parte hartzeko eskabidearekin batera aurkeztutako agirien jatorrizkoak edo fotokopia konpultsatuak.

4. Izangaien onarpena.

4.1. Eskabideak aurkezteko epea amaitutakoan, Giza Baliabideetako zuzendariak ebazpena emanen du, izangai onartu eta baztertuen behin-behineko zerrenda onesteko, eta Udalaren webgunean deialdiaren fitxan argitara dadin aginduko du.

4.2. Baztertutako izangaiek aukera izanen dute bost egun balioduneko epean, behin-behineko zerrenda deialdiaren web-fitxan argitaratu eta hurrengo egunetik aitzina zenbatuta, erreklamazioak aurkezteko edo, hala behar izatera, egindako akatsak zuzentzeko. Erreklamazioak izangai onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda onesten duen ebazpenean zehazten den bidetik aurkeztuko dira.

4.3. Ezarritako epean eskabiderik aurkezten ez bada, Iruñeko Udaleko Giza Baliabideetako zuzendariak lehiaketa bete gabe gelditu dela deklaratzeko duen ebazpena emanen du. Ebazpen hori Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.

4.4. Baztertutako izangairik ez balego, behin betiko zerrenda onetsiko da zuzenean, eta deialdiaren web-fitxan argitaratuko da.

4.5. Erreklamazioak aurkezteko epea amaituta eta haien gainean ebatzi ondoren, Giza Baliabideetako zuzendariak izangai onartuen eta baztertuen behin betiko zerrenda onesteko ebazpena emanen du, eta deialdiaren web-fitxan argitara dadila aginduko.

5. Kalifikazio-epaimahaiaren osaera, eraketa eta jarduketa.

5.1. Kalifikazio-epaimahaia kide hauek osatuko dute:

Epaimahaiburua: Iñigo Anaut Peña, Iruñeko Udaleko gerentea.

Epaimahaiburu ordezkoa: Aitor Navarro Aristorena, Iruñeko Udaleko Ogasuneko eta Kontratazio Publiko Arduratsuko Alorreko zuzendaria.

Epaimahaikidea: Langileen Batzordeko ordezkari bat, Batzordeak berak izendatua.

Epaimahaikide ordezkoa: Langileen Batzordeko ordezkari bat, Batzordeak berak izendatua.



Epaimahaikide-idazkaria: Beatriz Martínez Buldain, Iruñeko Udaleko giza baliabideetako teknikaria.
Idazkari ordezkoa: Raquel Pérez García, Iruñeko Udaleko giza baliabideetako teknikaria.

5.2. Epaimahaia eratu beharko da onartu eta baztertuen behin betiko zerrenda argitaratu ondoko bost eguneko epean.

5.3. Epaimahaia ezin izanen da eratu, ezta jardun ere, kideen gehiengoa bildu gabe.

5.4. Kalifikazio-epaimahaiko kideek parte hartzeari uko egin beharko diote, eta organo deitzaileari hori jakinarazi, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legean horretarako ezarriak dauden arrazoiak suertatzen badira. Izangaiek, halaber, zilegi izanen dute epaimahaikideak errekusatzea, aipatu inguruabar horiek gertatzen badira.

5.5. Epaimahaiak gehiengoz erabakiko du deialdiaren oinarriak aplikatzean sortzen ahal diren arazo guztiei buruz.

5.6. Epaimahaiak aholkulari espezializatuak edukitzen ahalko ditu; aipatu aholkulariak beraien espezialitate teknikoetan soilik ariko dira, eta haietan oinarriturik bakarrik emanen diote laguntza epaimahaiari.

6. Merezimenduen balorazioa.

6.1. Honako elementu hauek baloratuko dira 46 puntuko gehieneko balioa izanen duen eskala baten barruan, honela banatuta:

a) Antzintasuna Iruñeko Udalean eta haren erakunde autonomoetan, ofizial administrari lanpostuan: 1 puntu, zerbitzu-urte oso bakoitzeko (40 puntu bitarte).

Urteen kopurua osoa ez bada, zerbitzuan egindako aldiari proportzioan dagokion puntuazioa esleituko zaio.

Ez dira aintzat hartuko deialdia argitaratu ondoren egindako zerbitzuak.

b) Puntuazio gehigarria, hizkuntzak ezagutzeagatik: 6 puntu gehienez ere.

b.1.) Frantsesa, ingelesa edo alemana jakitea baloratuko da, Europar Batasuneko lan-hizkuntza baitira; gehienez ere 2 puntu hizkuntza bakoitzeko.

b.2.) Euskara jakitea baloratuko da, plantilla organikoaren arabera lanpostuan aritzeko euskara jakitea nahitaezkoa ez denean: 2,76 puntu gehienez.

6.2. Izangai bakoitzak aurreko bi apartatuetan alegatu eta frogaturiko merezimenduak deialdi honen I. eranskinean jasotako baremoari jarraikiz kalifikatu eta puntuatuko dira.

6.3. Epaimahaiak ezin izanen du inolaz ere kontuan hartu alegatu gabeko eta agirien bidez egiaztatu gabeko merezimendurik, ezta apartatu bakoitzerako ezarritako gehieneko puntuazioa baino altuagorik eman ere.

6.4. Epaimahaiak azalpenak eta datu osagarriak eskatzen ahalko ditu lehiaketan parte hartzen duten izangaiek alegatu eta egiaztatutako merezimenduen gainean.

6.5. Behin merezimenduen kalifikazioa amaituta, epaimahaiak Udalaren webgunean argitara emanen ditu parte-hartzaileek lortutako puntuazioak, eta bost egun balioduneko epea irekiko du, webgunean argitaratu eta biharamunetik aitzina kontatuta, interesdunek merezimenduen balorazioaren gainean eskubidez komeni zaien guztia alega dezaten.

6.6. Lehiatzaileek guztira lortzen dituzten puntuetan berdinketarik bada, administrazio publikoen zerbitzuan antzintasun handiena dutenen alde joko da. Berdinketak bere horretan badirau, kalifikazio-epaimahaiak xede horrekin egiten duen zozketa bakarraren bidez ebatziko da.



7. Izangaiei zerrenda, lortutako puntuazioaren arabera, eta lanpostu hutsak hautatzea.

7.1. Kalifikazio-epaimahaiak, aurkezten diren erreklamazioak ebatzi ondoren, Udalaren webgunean argitaratuko ditu izangai guztien behin betiko puntuazioak, eta Giza Baliabideetako zuzendariari igorriko dio izangaiei zerrenda, lortutako puntuazioaren arabera ordenatuta, espediente osoarekin batera.

Behin aurreko izapidea beteta, parte-hartzaileen eskura jarriko da hautatzen ahal duten lanpostuen zerrenda, Udalaren webguneko deialdiaren fitxan argitaratuta, eta bost egun balioduneko epea emanen da interesatutako parte-hartzaileek eskaera modu telematikoan egin dezaten, erregistro elektronikoaren bidez.

Deialdia egin duen organoak hautaketa- eta esleipen-ekitaldia egingen du, puntuazio-ordena kontuan hartuta.

Hautaketaren emaitzari buruzko informazioa Iruñeko Udalaren webgunean argitaratuko da.

Adierazitako epearen barruan eskabidea igortzen ez duten izangaiek galdu egingen dituzte lehiaketaren xede diren lanpostu hutsak betetzeko eskubide guztiak.

Lanpostuak hautatzeko epea amaitu ondoren, lehiatzaileek ezin izanen diote uko egin hautatutako lanpostuari.

8. Lanpostuen esleipena eta jabetza hartzea.

8.1. Giza Baliabideetako zuzendariak interesdunen eskaeren arabera esleituko ditu lanpostuak, betiere horiek lortu duten puntuazioarekin bat.

Birkokatutako lehiatzaileei dagokienez, Iruñeko Udaleko eta haren erakunde autonomoetako langileen hitzarmen kolektiboaren II. eranskineko hamaikagarren artikuluan eta Iruñeko Udaleko langile lan-kontratudunen Hitzarmen kolektiboan xedatutakoa beteko da.

Lanpostu hutsak hautatzeak esan nahi du lehiatzaileak berariaz onartzen duela berak adierazitakoen artean esleitu zaion lanpostua, eta ezin izanen dio uko egin.

8.2. Behin lanpostu hutsak esleituta, Giza Baliabideetako zuzendariak dagozkion izendapenak egingen ditu, eta horiek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratuko dira.

8.3. Izangaiek esleipenari buruzko ebazpena jakinarazi eta hamar egun naturaleko epean hartu beharko dute lanpostuen jabetza, eta deialdia egin duen organoak ebazpenean bertan ezartzen ahalko du lanpostuaz jabetzeko eguna.

9. Errekurtsoak.

Deialdi honen, deialdiaren oinarrien eta haiek aplikatzeko epaimahaia sorburu ez duten egintzen aurka, errekurtsu hauetariko bat paratzen ahal da:

- a) Berraztertze errekurtsua, egintza gauzatu duen organoari zuzendua, hilabeteko epean, ebazpen hau jakinarazi edo argitaratu eta biharamunetik aitzina.
- b) Gora jotzeko errekurtsua, Nafarroako Administrazio Auzitegiari zuzendua, hilabeteko epean, errekurritutako egintza edo erabakia jakinarazi edo argitaratu eta biharamunetik aitzina.
- c) Administrazioarekiko auzi-errekurtsua, Administrazioarekiko Auzien Iruñeko Epaitegiari zuzendua, bi hilabeteko epean, errekurritu nahi den egintza edo erabakia jakinarazi edo argitaratu eta biharamunetik aitzina.



Kalifikazio-epaimahaiaren egintzen eta ebazpenen aurka, gora jotzeko errekurtoa aurkezten ahalko da, deialdia egin duen udal-organoari zuzendua, hilabeteko epean, errekurritu nahi den egintza edo erabakia argitaratu edo jakinarazi eta hurrengo egunetik aitzina kontatuta.

Udalaren webgunean argitaratuko dira hala jarritako errekurtoak nola haien gainean emandako ebazpenak, hautapen-prozesu honetako interesdunei jakinarazteko eta dei egiteko.

Iruñean, 2025eko maiatzaren 19an.-Giza Baliabideetako Zuzendaria, Xabier Burgui Vergara.

I. ERANSKINA - BAREMOA

Lekualdatze-lehiaketa honetan elementu hauek baloratuko dira 46 puntuko gehieneko balioa izanen duen eskala baten barruan, honela banatuta:

a) Antzintasuna Iruñeko Udalean eta haren erakunde autonomoetan, ofizial administrari lanpostuan: 40 puntu bitarte.

Urteen kopurua osoa ez bada, zerbitzuan egindako aldiari proportzioan dagokion puntuazioa esleituko zaio. Ez dira aintzat hartuko deialdia argitaratu ondoren egindako zerbitzuak.

b) Puntuazio gehigarria, hizkuntzak ezagutzeagatik: 6 puntu gehienez ere.

b.1.) Frantsesa, ingelesa edo alemana jakiteagatik, Europar Batasuneko lan-hizkuntza baitira, gehienez ere 2 puntu hizkuntza bakoitzeko.

Hizkuntzetarako Europako Erreferentzia Esparru Bateratuaren C1 mailaren pareko jakite-maila egiaztatzen duen titulu edo ziurtagiria duenari 2 puntu emanen zaizkio, gehienez ere.

Titulu edo ziurtagiri hori eduki ezean, A1, A2, B1, B2 eta C1 mailen baliokidea den titulua edo ziurtagiria baloratuko da, honela:

A1: 0,4 puntu / A2: 0,8 puntu / B1: 1,2 puntu / B2: 1,6 puntu / C1: 2 puntu

b.2.) Euskara jakiteagatik, plantilla organikoaren arabera lanpostuan aritzeko euskara jakitea nahitaezkoa ez denean: 2,76 puntu gehienez.

Hizkuntzetarako Europako Erreferentzia Esparru Bateratuaren C1 mailaren pareko jakite-maila egiaztatzen duen titulu edo ziurtagiria duenari 2,76 puntu emanen zaizkio, gehienez ere.

Titulu edo ziurtagiri hori eduki ezean, A1, A2, B1, B2 eta C1 mailen baliokidea den titulua edo ziurtagiria baloratuko da, honela:

A1: 0,55 puntu / A2: 1,10 puntu / B1: 1,65 puntu / B2: 2,20 puntu / C1: 2,76 puntu



II. ERANSKINA – DEITUTAKO LANPOSTUAK

LANPOSTUA	ARAUBIDEA	ALORRA	NAHITAEZKO HIZKUNTZA: EUSKARA	OHARRAK
1-300100-4	Funtzionarioa	Gerentzia		
1-300100-12	Funtzionarioa	Sustapen Ekonomikoa, Berrikuntza, Europar Proiektzioa, Garapenerako Lankidetza		
1-300100-31	Funtzionarioa	Berdintasuna, Ekintza Komunitarioa, Auzoak, Herritarren Partaidetza eta Euskara	C1	
1-300100-37	Funtzionarioa	Gobernu Estrategikoa, Hirigintza, Etxebizitza eta 2030 Agenda		
1-300100-43	Funtzionarioa	Sustapen Ekonomikoa, Berrikuntza, Europar Proiektzioa, Garapenerako Lankidetza		
1-300100-48	Funtzionarioa	Gobernu Estrategikoa, Hirigintza, Etxebizitza eta 2030 Agenda		
1-300100-53	Funtzionarioa	Gobernu Estrategikoa, Hirigintza, Etxebizitza eta 2030 Agenda	C1	
1-300100-62	Funtzionarioa	Herritarren Segurtasuna eta Bizikidetza		
1-300100-64	Funtzionarioa	Giza baliabideak		
1-300100-66	Funtzionarioa	Ogasuna eta kontratazio publiko arduratsua		
1-300100-69	Funtzionarioa	Gobernu Estrategikoa, Hirigintza, Etxebizitza eta 2030 Agenda	C1	
1-300100-82	Funtzionarioa	Ogasuna eta kontratazio publiko arduratsua		
1-300100-86	Funtzionarioa	Ogasuna eta kontratazio publiko arduratsua		
1-300100-88	Funtzionarioa	Ogasuna eta kontratazio publiko arduratsua		
1-300100-96	Funtzionarioa	Hiri Kontserbazioa eta Osasuna		
1-300100-134	Funtzionarioa	Gerentzia		
1-300100-158	Funtzionarioa	Gobernu Estrategikoa, Hirigintza, Etxebizitza eta 2030 Agenda	C1	
1-300100-164	Funtzionarioa	Hiri Kontserbazioa eta Osasuna		
1-300100-177	Funtzionarioa	Kultura, Jaiak, Hezkuntza eta Kirola		
1-300100-186	Funtzionarioa	Giza baliabideak		
1-300100-188	Funtzionarioa	Gerentzia	C1	
1-300100-189	Funtzionarioa	Herritarren Segurtasuna eta Bizikidetza		
1-300100-191	Funtzionarioa	Kultura, Jaiak, Hezkuntza eta Kirola		



1-300100-193	Funtzionarioa	Herritarren Segurtasuna eta Bizikidetza		1-400000-89 plazaren birmoldaketa
1-300100-195	Funtzionarioa	Herritarren Segurtasuna eta Bizikidetza		2-400000-80 plazaren birmoldaketa
1-300100-196	Funtzionarioa	Berdintasuna, Ekintza Komunitarioa, Auzoak, Herritarren Partaidetza eta Euskara		1-400000-41 plazaren birmoldaketa
1-300100-197	Funtzionarioa	Gerentzia	C1	1-1400000-249 plazaren birmoldaketa
1-300100-198	Funtzionarioa	Giza baliabideak	C1	1-1400000-286 plazaren birmoldaketa
1-300100-199	Funtzionarioa	Hiri Kontserbazioa eta Osasuna		1-400000-201 plazaren birmoldaketa
1-300100-201	Funtzionarioa	Herritarren Segurtasuna eta Bizikidetza		1-400000-62 plazaren birmoldaketa
1-300300-2	Funtzionarioa	Gizarte Ekintza		
1-300300-28	Funtzionarioa	Gizarte Ekintza		
1-300300-39	Funtzionarioa	Gizarte Ekintza		1-404800-81 plazaren birmoldaketa
1-300300-41	Funtzionarioa	Gizarte Ekintza		2-404800-8 plazaren birmoldaketa
1-300300-42	Funtzionarioa	Gizarte Ekintza		1-404800-31 plazaren birmoldaketa
1-300300-43	Funtzionarioa	Gizarte Ekintza		1-404800-89 plazaren birmoldaketa
1-300300-44	Funtzionarioa	Gizarte Ekintza		1-404800-90 plazaren birmoldaketa
1-300300-45	Funtzionarioa	Gizarte Ekintza		1-404800-91 plazaren birmoldaketa
109	Funtzionarioa	Haur Eskolak		
110	Funtzionarioa	Haur Eskolak		
118	Funtzionarioa	Haur Eskolak		
123	Funtzionarioa	Haur Eskolak	C1	